A 1316

herrera

Herri-Pek Udalari erantzun dio

Mendi-Zaleak elkarteak haurrekin antolatzen dituen ibilaldiak bikoiztu ditu, eta hasiera batean Herri-Ametsa Ikastolarekin bakarrik egiten bazituen ere, hemendik aurrera Herrerako Ikastetxe Publikoarekin ere egingo ditu irteerak. Honela igande honetan, hilak 27, Herri-Ametsa Ikastolako gazteak Larraitz, Ausa eta Gaztelura joango dira ingurugiro ezin hobe hau ezagutuz.

Herrerako Ikastetxe Publikoak berriz Tolosa eta Alegia artean dagoen Otxabi mendia bisitatuko du.

Mozkor Frentekideak aurrera darrai bere VIII. Pilota Goma Txapelketarekin. Hilaren 26rako, larunbata, hiru pilota partidu iragarri dira. Lehenengoa basurde-Kokis bikotea Pato-Koczisen aurka arituko da. Bigarren partiduan Kakati-Lumbagosek, Bla Bla-Kanito izango dituzte arerio bezala eta azkenik Prost-Europeo Txuti-Popiren aurka ibiliko dira.

Etxebizitza hauek behera botako dira Plan Bereziaren arabera. Bertan bizi direnak berriz ez daude ados erabaki horrekin.

Herri-Pek salatu egin du azaroaren 15ean El Diario Vasco-n *«Rehabilitación de áreas deterioradas»* sailean agertutako Ordoñezen iritzia.

Herri-Pek dioenez *«Ordoñez herreratarrak bizi garen moduan ondo gaudela uste du»*. Baina elkarte honen ustez hau ez da horrela *«San Luis enparantza oinezkoentzat izan dadin nahi dugu eta baita ur bilketa egoki bat ere»*.

Uholdeentzat konponketa

«Herrera gaur egun aldapaz betetako kaleez osatuta dago eta horren ondorioz, euri garaietan San Luis enparantzan urak gainezka egiten du. Uholde larriak izan ditugu hemen».

Herri-Pek dioenez *«ez dugu nahi gure auzoa bitan zatitua ikusi nahi eta ez dugu uholde gehiago nahi»*.

Plan Berezia

Plan Berezik, Herrerako zenbait etxe desagertaraztea aurrikusten du. Herri-Peren esanetan, *«kaltetuak etxeak behera botatzearen aurka agertu dira baina ez dute Plan Berezia gelditzeko eskatu; horrek ez du esan nahi, Ordoñez jaunak uste duen bezala, herreratarrak plan honekin kontentu gaudenik»*.

Herrerako Plan Berezia zaila eta konplexua denez gure auzoan hilabetez egon da ikusgai, bertatik Herrerako biztanleek ondorio propioak atera ahal izan dituzte eta Udalari alegazio eta kezkak aurkeztu dizkiote *«Herrerako bizitza kalitate hobeagoaren bila arituko gara ahal dugun neurrian»* adierazi du Herri-Pek.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)
ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

ETORRI
BOLSOAK - ATERKIAK - LARRUZKO ARTIKULUAK
Galtzarra Nagusia,22 - Tfnoa.: 27 12 19